

KIROLAREN EREMUAN 2022/2023 ETA/EDO 2023/2024 DENBORALDIETAN SESTAOKO UDALAREN ESKU-HARTZEA OSATU ETA/EDO ORDEZKATZE ALDERA, PROGRAMAK ETA JARDUERAK SUSTATU ETA GARATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIARI BURUZKO OINARRI ARAUEMAILEAK.

Lehenengoa.–Helburua eta xedea

1. Dirulaguntza-deialdi honen xedea eta helburua da kirolaren eremuan Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu edota ordezkatzeko duten programak eta jarduerak sustatu eta garatzea.

Deialdi honen xedea diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzen dituzten entitateei laguntza ekonomikoa ematea da soilik; beraz, xedea ez da jarduerak egiteko udal-lokalak lagatzea.

2. Programak eta jarduerak irabazi-asmorik gabe egingo dira, Sestaoko udal-mugartea izango da haien garapen-esparrua, edo, bestela, Sestaoko udalerrian erroldatutako pertsonak izan beharko dira onuradun. Horrez gain, 2022/2023 eta/edo 2023/2024 kirol-denboraldietan garatuko dira.

3. Jasotako eskabideak ez badira iristen dirulaguntza gisa onartutako zenbatekora, "soberakina onartutako beste dirulaguntzara bideratu ahal izango da" (Estatuko eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan udalerriko Kirol-elkarte/-klubek eta kirolariek Bizkaiko lurralde historikotik kanpo egindako irteeretan sortzen diren ostatu-eta desplazamendu-gastuetarako dirulaguntzak), baldin eta beste horretan jasotako eskaerarako kreditu nahikorik ez badago. Horrek ez du esan nahi, hala ere, behar den kreditua ez badago, indize zuzentzailea behar denik hura emateko.

Bigarrena.– Dirulaguntza jaso dezaketen erakunde eta pertsonak

1. Diru-laguntza jaso ahal izango kirol-elkarteek edo kirolariek eginiko kirol-jarduerak, baldin eta deialdi honen oinarrien laugarren klausula betetzen badute, eta berariaz kanpoan utziko dira eskolaz kanpoko jarduerak edo ikastetxeek antolatzen dituztenak.
2. Sestaoko Udalak dirulaguntzak emateko udal ordenantzak 2.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak norgehiagokaren bidez banatuko dira. Hala eta guztiz ere, artikulua berean ezarritakoaren arabera, kasuan kasuko dirulaguntzak emateko prozedura gisa ezartzen da erabilgarri dagoen gehieneko zenbateko osoa eskatutako dirulaguntzaren arabera hainbanatzea, onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona/erakunde eskatzaileen artean. Eman beharreko dirulaguntzen zenbateko osoa aurrekontu erabilgarria baino handiagoa bada, ehuneko berean murriztuko dira eman beharreko dirulaguntza guztiak, harik eta guztizko zenbatekoa dagoen aurrekontu-esleipenarekin estali arte.

Hirugarrena.– Eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak.

1. Diru-laguntza emateko diru-laguntza jaso dezakeen jarduerak egiteko gastu guztiak kontuan hartuko dira.

2. Hala eta guztiz ere, ez zaie dirulaguntzarik emango honakoei:

- a) Dirulaguntza jasoko duen erakunde onuradunaren langileen ordainsariei eta gizarte-segurantzari dagozkion gastuak.
- b) Ondasun higiezinak erosteari dagokionak
- c) Altzariak edo ekipamendu teknikoa erostea, Sestaoko Udalaren iritziz ohiz kanpoko kostua badute, diru-laguntza jasotzen duen jarduerarekin alderatuz. Nolanahi ere, altzarien eta ekipamenduen erosketarako diru-laguntza emango balitz, diru-laguntza jaso duen jarduera amaitutakoan Sestaoko Udalaren jabetzakoa izango lirateke.
- d) Elkarteko zuzendaritzako kideek egindako prestazio profesionalen ondoriozko fakturak.
- e) Protokolo-gastutzat jotzen den guztia: bazkariak, afariak, ongietorri-luntxa, oparitxoak, oroitzapen-plakak, etab.
- f) Mantenu-fakturak, diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatzeko joan-etorrietarako ostatu-gastuen kasuan.

Ondorioz, dirulaguntza hauek eskatzen dituzten erakundeek edo pertsonak ez dute aipatutako kontzeptuengatik gastuen partidari sartuko Udalari aurkeztu dizkieten gastu-aurrekontuetan.

3. Onartuko dira diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko gastuak ondoko kasuetan:

Pertsona edo erakunde onuradunak azpikontratatu egin duela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partzialki gauzatzea. Kontratazioa hirugarren pertsona autonomo bati egiten bazaio, aurkeztutako fakturan dagokion PFEZ atxikipena egin beharko da, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudiaren arabera. Kasu horretan dauden eta PFEZren atxikipena ez duten fakturak ez dira dirulaguntza jasotzeko justifikaziotzat hartuko, eta, hala badagokio, emandako diru guztia itzultzeko eskatu ahal izango da.

Ez da azpikontratazioa izango diru-laguntza jasoko duen jarduera berez egiteko pertsona edo erakunde onuradunak izango dituen gastuak kontratatzea.

4. Oro har, eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa kirol-elkarteek edo kirolariek aurkeztutako gastu-aurrekontuaren % 100 izango da, eta jarduera 100eko 100ean diruz lagunduta badago, ezin izango du beste administrazio publiko batek diruz lagundu.

5. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, berak bakarrik edo beste Administrazio edo Erakunde publikok emandako edozein dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerekin batera, ez du inola ere erakunde edo pertsona onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gaindituko. Izandako diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertu ondoren, gehiegizko diru-sarrerak ateratzen badira gastuen gainetik, Sestaoko Udalak emandako dirulaguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio.

Laugarrena.– Betekizunak

1. Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradunak irabazi-asmorik gabe jarduten duten pertsona fisikoak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, izan daitezke, jarduera fisikoa eta kirolen eremukoa garatzen badute eta, gainera, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- 1) Deialdi honen bigarren oinarriko 1. puntuan aurreikusitako jardueretako batzuekin bat etortzea.
- 2) Udalaren interes publikoa lortzen laguntzea, eremu horietan Sestaoko Udalaren esku-hartzeak osatuz edota ordezkatzuz.
- 3) Jarduera teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izatea.
- 4) Pertsona fisikoek Sestaoko udalerrian erroldatuta egon beharko dute, deialdi honetako dirulaguntzaren xede den denboraldiaren hasierarekiko gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- 5) Pertsona juridikoek legez eratuta egon beharko dute, eta elkarteak direnek, gainera, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Sestaoko Kirol Erakundearen Udal Erregistroan erregistratuta egon beharko dute, deialdi honetako dirulaguntzaren xede den denboraldiaren hasierarekiko gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- 6) Pertsona juridikoen estatutuetan irabazi-asmorik ez dutela adierazi beharko da.
- 7) Pertsona juridikoek helbide fiskala eta soziala Sestaoko Udalerrian izan beharko dute.
- 8) Ez izatea dirulaguntzak lortzeko debekurik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 9) Sestaoko Udalak aldeztu aurretik emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatuak izatea. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango pertsona edo erakundeari Udalaren aurreko diru-laguntzarik justifikatzeke badu eta deialdiari dagokion eskabideak aurkezteko epearen amaieran justifikatzeko epea iraungita badago.
- 10) Zuzenbide publikoko zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eguneratuak izatea.
- 11) Administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso ez izana honako arrazoiengatik: sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten jardueretan aritzeagatik, aurreikusitako diskriminazio anitzeko faktoreengatik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, Berdintasunerako Euskal Legeari buruzko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koan, ezarritakoarekin bat.
- 12) Sestaoko Udalarekin izan dezaketen edozein zor-motaren ordainketak egunean izatea.

Bosgarrena.– Balorazio-irizpideak:

- a) Kirol-elkarteen aldeko dirulaguntza baloratzeko irizpideak: Guztira 100 puntu.
 - 1) Kirol-sustapenerako jarduerak garatzea: gehienez 25 puntu. Irizpide honetan baloratuko direnak:
 - Elkarteak kirol arloan duen garrantzia:
 - Behe-mailako kategoriak (eskoletakoak eta/edo federatuak) izatea: 10 puntu.
 - Behe-mailako bi kategoria edo gehiago edukitzea: 2,5 puntu.
 - Gizon eta emakumezkoen kategoriak izatea: 2,5 puntu.

- Autonomia Erkidegotik kanpoko lehiaketetan parte hartzea:
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, beheko kategorien lehiaketa ofizialetan eta parte hartzea: 5 puntu.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, beheko kategorietako bi lehiaketetan edo gehiagotan parte hartzea: 2,5 puntu.
- Eskola-adinean dauden kirolarientzat sustapen-programak garatzea: 2,5 puntu.

2) Kirol elkarteak duen kirolari federatuen kopurua: gehienez 35 puntu.

- 160 kirolari baino gehiago: 35 puntu.
- 140 eta 159 kirolari artean: 30 puntu.
- 120 eta 139 kirolari artean: 25 puntu.
- 100 eta 119 kirolari artean: 20 puntu.
- 80 eta 99 kirolari artean: 15 puntu.
- 40 eta 79 kirolari artean: 10 puntu.
- 20 eta 39 kirolari artean: 5 puntu.
- 1 eta 19 kirolari artean: 2,50 puntu.

3) Lankidetzat Udalaren Kirol Zerbitzuaren ekimenetan: gehienez 15 puntu.

- Kirol-hastapenerako doako eskola du: 5 puntu.
- Kirol-sustapenerako jardueraren batean lankidetzat dihardu: 5 puntu.
- Kirol-partaidetzari buruzko jardueraren batean lankidetzat dihardu: 5 puntu.

4) Kirol instalazioen erabilpen edo jabetza: gehienez 10 puntu.

- Bere kirol-instalazioak ditu edo abonatu gisa Udaleko kirol-instalazioak erabiltzen ditu: 10 puntu.
- Udalaren kirol-instalazioak erreserbatu eta ordaindu ditu edo kirolari abonatuaren txartelak ditu: 5 puntu.

5) Euskara erabiltzea: gehienez 5 puntu.

- Titulu bidez, 2. HE egiaztatuta duten monitoreak izatea. Kasu horretan, kirol-elkarteen/klubaren jardura ematen duen pertsonak hizkuntza-eskakizuna (2HE) egiaztatu beharko du, eta monitore kopuru osoaren ehuneko erreferentzia honako hau da:
- % 10 izatea: 0,5 puntu.
- % 20 izatea: puntu 1.
- % 30 izatea: 1,5 puntu.
- % 40 izatea: 2 puntu.
- % 50 izatea: 2,5 puntu, eta horrelaxe hurrenez hurren.

6) Gizarteratzea sustatuko duen programa bat egitea (atzeritarrak gizarteratzeko programak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzeko programak): 5 puntu.

7) Emakumeen kirola eragin eta sustatzea: 5 puntu.

- Emakumeen parte-hartzea %20tik beherakoa: puntu 1.
- Emakumeen parte-hartzea %20tik %40ra artekoa: 2 puntu.
- Emakumeen parte-hartzea %40tik %60ra artekoa: 3 puntu.
- Emakumeen parte-hartzea %60tik %80ra artekoa: 4 puntu.
- Emakumeen parte-hartzea %80tik %100era artekoa: 5 puntu.

b) Pertsona fisikoen aldeko dirulaguntza baloratzeko irizpideak:

1) Kirol-sustapenerako jarduerak garatzea: gehienez 90 puntu.

- Parte hartzea CSDk edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren modalitateen katalogoak onartutako Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko lehiaketa ofizialetan:
 - Estatuko lehiaketa ofizial batean parte hartzea: 10 puntu.
 - Estatuko bi lehiaketa ofizialetan edo gehiagotan parte hartzea: 15 puntu.
 - Europako txapelketa edo proba ofizialetan parte hartzea: 30 puntu.
 - Munduko txapelketa edo proba ofizialetan parte hartzea: 35 puntu.
- 2) Emakumeen kirola eragin eta sustatzea: 10 puntu.
 - Emakumezko kirolari bakoitzeko 10 puntu.

Seigarrena.—Nortasuna eta, hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzea

1. Oinarri hauetan definitutako dirulaguntzen onuradun izateko, interesdun orok egiaztatu beharko du bere nortasuna, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

2. Eskabidea pertsona juridiko batek aurkezten duenean, legezko ordezkariak sinatuko du, eta ordezkaritza hori egiaztatu beharko da zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez.

3. Ahalordea Sestaoko Udalaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatuta ez badago, interesdunak, dirulaguntza eskatzeko izapidea egin aurretik, ordezkaritza hori erregistratu beharko du.

Erregistroko inskripzioa "Ordezkaritza berria" izapidearen bidez egingo da <https://www.sestao.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=59764ae1-0cbe-eb11-bf46-00237d32158c> Erregistroa egin eta izapideari alta eman ondoren, aurkeztu ahal izango da dirulaguntzaren eskaera.

4. Hala ere, interesdunak ahalordea erregistratua badu, dirulaguntzaren eskaera baino ez du aurkeztu beharko, eta udalak ofizioz egiaztatuko du aurretik emandako ahalordea.

Zazpigarrena.—Eskaerak eta epeak

1. Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak jasotzeko, interesdunak Sestaoko Udalak www.sestao.eus web-orrian argitaratuta duen eredu normalizatuaren arabera egin beharko du eskaera.

Pertsona fisikoek Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikoa edo Erregistro Orokorren bidez aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak.

2. Aurreko paragrafoan araututako eskaerak zehaztuko du zer dokumentu tratatuko diren datu-bitartekaritzarako plataformei, sare korporatiboiei edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez, salbu eta interesdunak aurka egiten badu, eta, beraz, Udalarentzat eskuraezinak diren dokumentuak soilik aurkeztu beharko dira. 2022/23 denboraldiko dirulaguntzan aurkeztutako dokumentazioa, 2024ko abuztuaren 23ko BAOan atzera egindakotzat jo zena, ofizioz sartuko da deialdi honetan, eta ez da deialdi honetan aurkeztu beharko.

Hala ere, Udalak edozein unetan interesdunari eskatu ahal izango dizkio datu-bitartekaritzako plataformei, sare korporatiboiei edo gaitutako beste sistema

elektroniko batzuei kontsulta eginez eskura daitezkeen dokumentuak, baldin eta irispide hori eragozten duten inguruabar teknikoak edo ezintasun materiala badaude.

3. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, dirulaguntzei buruzko deialdiaren laburpena "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

4. Epez kanpo aurkezten diren eskabideak ezetsi egingo dira, bestelako izapiderik gabe, eta hala adieraziko da dirulaguntzak emateko deialdi honek jasotzen duen prozeduraren ebazpenean.

5. Eskaerak aurkezten direnean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honetan eta Sestaoko Udalak dirulaguntzak emateko Araudian adierazten diren baldintzak.

6. Eskabideak ez badira osorik betetzen, edo haiekin batera ez bada aurkezten I. eranskineko "Dokumentazioa eskuratzeko baimena eta kontra egitea" ataleko bigarren paragrafoan adierazitako dokumentazioa, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; eta atzera egite hori berariaz adieraziko da dirulaguntzak emateko deialdi honek jasotzen duen prozeduraren ebazpenean.

Zortzigarrena.— Izapideak, ebazpena eta errekurtsioak

1. Eskaerak Sestaoko Udaleko Kirol Zuzendaritzak izapidetuko ditu.

2. Eskaerak jaso ostean, aipatu Kiroletako Sailaren Zuzendaritzak eskatzaileak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela egiaztatuko du.

Sestaoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzaren 8. artikuluko 6. paragrafoan aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Era berean, aurkezten diren jarduerak eta proiektuak behar bezala baloratzeko, Zuzendaritzak beharrezko jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie pertsona edo erakunde eskatzaileei, eskaeraren baldintzak hobeto ezagutzeko.

Arestian aipatutako ekintzak amaitutakoan, Kirol Zuzendaritzak txostena egingo du, deialdian parte hartu duten erakundeei, jarduerai eta proiektuei buruzko behin-behineko ebazpen-proposamena jasoko duena. Ildo horri jarraiki, erakundeei edo jarduerak dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten zehaztu beharko da, deialdiko oinarriak aplikatu ostean bidezkoa litzatekeen dirulaguntzarekin batera.

3. Behin-behineko ebazpen-proposamena egin ondoren, Kultura eta Kirol Saileko Informazio Batzordeak behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio dirulaguntza eman behar duen organoari. Proposamen hori bat etor daiteke lehen aipatu den Kirol Zuzendaritzaren txostenarekin, edo ez; baina, nolanahi ere, arrazoitua eta dagokion deialdian ezarritako betekizun eta irizpideen arabera izan beharko du.

4. Tokiko Gobernu Batzordeak, organo kolegiatuak luzatutako behin betiko ebazpen-proposamena ikusirik, prozedura ebatziko du eta behin betiko ebazpen-proposamenaren ildotik edo bestetik egin ahal izango du. Bigarren kasuan arrazoitu

egin beharko du eta deialdiaren irizpide aplikagarrietan eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzan oinarritua ebazpena justifikatu.

Prozeduraren ebazpenean eskatzaile bakoitzari emandako dirulaguntzak eta baldintzak (besteak beste, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa, jarduerak gauzatzeko modua eta epeak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab.) adieraziko dira, baita ezetsitako eskabideak eta atzera egindakotzat jotakoak, eta horretako egon diren arrazoiak ere.

5. Diru-laguntza ezetsi egingo da, pertsona edo erakunde eskatzaileak Deialdi hau arautzen duten oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen ez dituenean. Era berean, dirulaguntzak ezetsi egingo dira, dagozkien partidetan kreditu eskuragarriak agortzen direnean.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, baita horren kontra jar daitezkeen errekursoak adierazi ere.

Ebazpen hori Sestaoko Udalaren iragarkien oholtzan azalduko da hilabete batez, deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenari buruzko laburpena eta ebazpen hori jendaurrean ipiniko den tokia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik zenbatzen hasita.

Sestaoko Udalak Dirulaguntzei buruzko Datu-base Nazionalari (aurrerantzean BDNS) bidaliko dio emandako dirulaguntzei buruzko informazioa.

7. Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzak onartzen dituztela ulertuko da, baldin eta, dirulaguntzak emateko erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun balioduneko epean, Sestaoko Udalari ez badiote idatziz jakinarazten dirulaguntzari uko egiten diotela.

Bederatzigarrena.– Onuradunen betebeharrak.

1. Dirulaguntzen onuradun diren pertsona edo erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Deialdi honetan agertzen diren arauak zehatz-mehatz betetzea, baita dirulaguntza emateko udal-ebazpenean zehatz daitezkeen gainerako baldintzak ere.
- b) Emandako dirulaguntza bere helburura bideratzea.
- c) Dirulaguntza jasoko duen jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimenak (publikoak edo pribatuak) lortzea, jarduerak edo proiektuak antolatu eta egiteko edozein elementuri dagokion legezko araudia betetzea, erantzukizun zibileko eta istripuetako aseguru-poliza izenpetzea, eta, laburbilduz, jarduera edo proiektua gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak onartzea. Sestaoko Udala edozein erantzukizunez salbuetsia dago.
- d) Sestaoko Udaleko Kirol Zerbitzuak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak direla-eta eskatzen zaion informazio osagarri guztia ematea.
- e) Sestaoko Udalaren laguntza berariaz adieraztea, Servicio Municipal de Deportes/Udal Kirol Zerbitzua edo Sestao Kirolak aipatuz, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak zabaldu, hedatu edo argitaratzeko erabiltzen diren bitarteko, idatzi eta ikus-entzunezko guztietan, betiere kartelak jartzeari buruzko udal-araudia betetzea. Hedapen-, zabaltze- eta argitaratze-bitartekoak bi

hizkuntza ofizialetan egingo dira. Arau hori betetzen ez bada, **euskara erabiltzeagatik emandako 5 puntuak** galduko dira.

- f) fSestaoko Udalari jakinaraztea diruz lagundu dituen jardueretarako lortu diren bestelako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, edozein erakunde publiko edo pribatutik datozenak.

Hamargarrena.– Justifikazioa

1. Tokiko Gobernu Batzordeak dirulaguntza onartu ondoren, erakunde onuradunak dirulaguntza behar bezala erabili duela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu, gehienez ere 10 eguneko epean, aipatutako laguntzaren jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Aurkeztutako justifikazioa egiaztatu eta ontzat eman ondoren, ordainketa bakarrean ordainduko da.

2. Justifikazio modura aurkeztu behar den dokumentazioa honakoa da:

- a) Urtean zehar edota kirol denboraldian zehar egindako jarduera gauzatzeko diru-sarrerak eta gastu guztien balantze ekonomiko osoa.
- b) Jarduerak sortu dituen gastuen ziurtagiri orijinalak dirulaguntza modura emandako zenbateko guztia osatu arte eta diru-laguntzaren xede den epeari dagozkionak.

Frogagiri horiek fakturak edo froga-balio baliokidea duten beste dokumentu batzuk izan beharko dute, eta baliozkoak izan beharko dute merkataritzako trafiko juridikoan.

Ez dira frogagiri gisa onartuko:

- Administrazioaren, antolaketaren eta abarren barne-kostuak.
- Bazkide-bazkarien edo antzekoen kostuak.
- Hartu-agiriak.

- c) Justifikazioa kuxako tiketaren bidez egiten denean, baliozkoa izateko, faktura sinplifikaturako jasotzen diren zenbatekoa eta edukia onartzeko baldintzak bete beharko dira, Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Fakturak eta tiketek honako hauek jaso beharko dituzte: zenbakia, jaulkipen-data, izena edo sozietatearen izena, IFK, kontzeptua, aplikatutako BEZ eta gutzizko zenbatekoa. Beraz, datu horietako edozein jasotzen ez duen faktura/tiketa ez da baliozko gisa onartuko.

3. Frogagiriekin nahitaez bat etorri behar dute aurretiazko eskabidearen arabera dirulaguntza emateko arrazoi izan diren helburu eta jarduerak betetzearekin, eta ez dira justifikazio gisa onartuko beste helburu batzuk betetzeko egindako gastuak.

4. Pertsona edo erakunde onuradunak aurkeztu behar dituen jatorrizko egiaztagirien gordailuzaina izan behar badu, horren arrazoia adieraziko du dokumentuak aurkezten dituenean haien fotokopiekin batera, eta udal-zerbitzuek alderatu ondoren, Sestaoko Udalak jatorrizko dokumentuak zigilatu eta jasota utziko du gastu horiek Udalaren dirulaguntza jaso dutela. Ondoren, pertsona edo erakunde onuradunari itzuliko dizkio.

5. Gastuak egiaztatzen dituen dokumentazioa justifikazio modura onartzeko, dirulaguntza eman den aldiko data izan beharko du.

6. Pertsona edo erakunde onuradunak jarduerak azpikontratatu dituela egiaztatzen duten agiriak onartuko dira, deialdi honetan ezarritako gehieneko muga barruan.

7. Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epea dirulaguntzak emateko ebazpenean ezarriko da, eta inola ere ez da izango hilabeteko epea baino luzeagoa, 2024ko ekitaldia amaitzen denetik zenbatzen hasita, Udal Ordenantzaren 11.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

8. Aurkeztutako justifikazioa nahikoa ez dela iritziz gero, 10 egun naturaleko epea emango da antzemandako akatsak zuzentzeko. Eskatutako zuzenketa egiten ez bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da behar bezala justifikatutako zenbatekoaren proportzioan, eta horrek, kasuaren arabera, dirulaguntza osorik ez ordaintzea ekarriko du.

Hamaikagarrena.– Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna

Dirulaguntzen deialdi hau izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Sestaoko Udala izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako manuak betez.

Tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren helburua da dirulaguntza bat ematea oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakunde onuradunei.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Datu pertsonalen tratamendua Udalari esleitutako botere publikoen egikaritzan oinarritzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluen arabera.

Tratamenduari eusten dion oinarri juridikoa jasota dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Lege Orokor horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan araututa dago.

Datu-bitartekaritza

Sestaoko Udalak, lege esleituta dituen eskumenak baliatuz, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ditzake beste administrazio batzuetatik datozen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Nolanahi ere, Udalak egiaztapen- eta/edo kontrol-lanak egin ahal izango ditu, eta lege agindutako prozedurak izapidetzeko, kudeatzeko eta ebazteko beharrezkoa den edozein dokumentu eskuratu ahal izango du.

Publizitatea

Sestaoko Udalak, dirulaguntza-deialdia onartu ondoren, BDNSri informazioa bidaliko dio oinarriari, programari eta aurrekontuko kredituari buruz, bai eta horien xedeari edo helburuari buruz ere. Horren ostean, deialdia ebatzi ondoren, Udalak onuradunen zerrenda, esleitutako eta benetan jasotako zenbatekoa eta, hala badagokio, itzultze- eta zehapen-ebazpenak jakinaraziko ditu.

Edozein pertsonak eta/edo administrazioak kontsultatu ahal izango du BDBNra igorritako informazioa, DLOren helburua gardentasuna eta iruzurraren aurkako borroka sustatzea baita.

Halaber, Udalak emandako dirulaguntzen edo/eta laguntzen zenbatekoari, helburuari edo xedeari eta onuradunei buruzko datuak Udalaren webgunean eta "Sestao Zabaltzen" Gardentasun Atarian argitaratuko dira; hori guztia Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin bat etorritik.

Datuak lagatzea

Udalbatzako kideek eskubidea izango dute alkatearen eskutik Udalaren zerbitzuen esku dauden aurrekari, datu edo informazio guztiak jasotzeko, beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak badira. Datu horien artean daude dirulaguntzak emateari buruzko datuak.

Gainera, eta Udalari eska dakiokkeen gardentasunaren ondorioz, datuak interes publikoaren izenean artxibatzeko edo estatistikak egiteko tratatu ahal izango dira.

Erabaki automatizatua.

Dirulaguntzen eskatzaileen datu pertsonalak ez dira automatikoki tratatuko; hala ere, Erregistro Sisteman, espedienteen kudeatzailean, Sestaoko Udaleko Kontabilitate Sisteman eta, beharrezkoa izanez gero, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikokoan sartuko dira. Horren helburua deitutako dirulaguntzak izapidetu eta kudeatzea baino ez da.

Datuen jatorria.

Datu pertsonalak interesdunak berak emango ditu; hala ere, interesdunak aurka egiten ez badu, Udalak interesdun horren dokumentuak beste administrazio publiko batetik ere eskuratu ahal izango ditu.

Datuen hartzaileak

Tratatutako datu pertsonalak BDNSri jakinaraziko zaizkio.

Datuen babesaren arloko eskubideak eta erreklamazio-bideak

Interesdunak Sestaoko Udalaren aurrean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubidea erabili ahal izango du Udal Erregistroan (Kasko plaza z.g., 48910 Sestao, Bizkaia), Sestaoko Udalaren egoitza elektronikokoan (<https://www.sestao.eus/eu-ES/lzapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c>) edo Administrazio Publikoen Erregistroen arloko Laguntza Bulegoen Sarean.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Tratatutako datu pertsonalen eremuak

Sestaoko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako eskumenak garatuz eta deialdi honetan eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko helburuarekin, honako datu-eremu hauek tratatuko ditu:

☒	Oinarrizko datuak: Izen-abizenak.
☒	Identifikazio-datuak: NAN/AIZ.
☒	Auzotasun-datuak: Erroldatzea.
☒	Lokalizatzeko datuak: helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
☒	Ordezkaritza-datuak: ahalorde-emailearen eta ahalordedunaren izen-abizenak, NAN/AIZ eta ordezkari-tza-ahalordea (notarioa, apud acta,...)
☒	Jardueraren datuak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egunean egotea, Sestaoko Udalarekin egunean egotea, dirulaguntzak jasotzeko aukera kentzen dion ebazpen irmo baten bidez zehapenik jaso ez izana, dirulaguntzen onuradun izateko debekuaren kausan sartuta ez egotea, sexuagatiko bereizkeria dela-eta zigor penal edo administratiborik jaso ez izana eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera dirulaguntzen edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortua ez izatea.
☒	Bankuko datuak: Hartzekodunaren fitxa.
☒	Hirugarrenaren datuak (jardueren arduraduna): Oinarrizko datuak: Izen-abizenak. Harremanetarako datuak: Telefonoa Prestakuntza-datuak Hizkuntza eskakizuna:

Hamabigarrena.– Beste baldintza batzuk

Lehenengoa:.- Diru-laguntzaren ordainketari, itzulketari, zigor-erregimenari eta beste edozein alderdiri dagokionez, deialdian aurrez ikusi ez bada, diru-laguntzak izapidetu eta emateko prozedura arautzen duen Sestaoko Udalaren Araudiak xedatutakoa aplikagarria izango da. Halaber, Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, xedatutakoari erreparatuko zaio, aplikagarria den guztian.

Bigarrena: Kirol-elkarteen eta kirolarien aldeko dirulaguntzak partida honen kontura emango dira: 3410 Programa, 48102 azpi-kontzeptua eta gehienez ere 89,600,00 euro esleituko dira.

Aurkeztutako dirulaguntzetan soberakina edo falta duen partidarik ikusten bada, 3410.48102 eta 3410.48124 bata bestearekin konpentsatu ahal izango dira, ahalik eta dirulaguntzarik handiena emateko.

Hirugarrena: Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da dagokion ekitaldian dirulaguntza horretatik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Laugarrena: Eskatutako agirien aurkezpena erraztearren, eredu hauek eskaintzen dira:

I. ERANSKINA
DIRULAGUNTZA ESKAERA SESTAOKO UDALARI, KIROLAREN EREMUAN
JARDUERAK EGITEKO 20.../20... ETA/EDO 20.../20... DENBORALDIETAN

ERAKUNDEAREN DATUAK.

Izena	IFZ	
Egoitzaren helbidea EAEn:		
Telefonoa	Faxa:	Posta elektronikoa
Eratze-data	Eusko Jaurlaritzaren Erregistroko inskripzio-data	
EAEko erregistroko inskripzio-data		
Jardueren arduraduna	Telefonoa	

ORDEZKARIA

1. Abizena	2. Abizena
Izena	NAN/AIZ
Erakundean betetzen duen kargua	

JAKINARAZPEN OFIZIALETARAKO HELBIDEA.

Helbidea		
Telefonoa	Tel. mugikorra	Posta elektronikoa

☐ Ez dut nahi¹ Sestaoko Udalak ondorengo informazio hau lortzea:

- ☐ Eskabide hau sinatzen duenaren nortasun-datuen egiaztapena.
- ☐ Ahalordetzeen erregistroa eta/edo ordezkartzako notario-ahalardea.
- ☐ Erroldatze-ziurtagiria, dirulaguntzen deialdia argitaratzen den egunetik gutxienez hiru urteko antzinatasuna duena.
- ☐ Egoitza fiskala eta soziala Sestaoko udalerrian
- ☐ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, betebeharrak ordainduta izatea egiaztatzen duena.
- ☐ Bizkaiko Foru Aldundiaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak ordainduta izatea egiaztatzen duena. Zerga-betebeharretatik salbuetsita egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa.
- ☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorreko inskribapena edo, halakorik ezean, Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Berezian eginikoa.
- ☐ Sestaoko Udalarekin ordainketak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

☐ Honako hauei buruzkoak ematen ditut:

- ☐ Ordezkaritza ematea.
- ☐ Eskatzailea pertsona juridikoa bada: Identifikazio Fiskaleko Kodearen fitxa.
- ☐ Estatutuak
- ☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorreko inskribapena edo Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Berezian eginikoa.
- ☐ Hartzekodunaren fitxa behar bezala sinatua, deialdiaren VI. eranskinean xedatutako ereduarekin bat.
- ☐ Izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzultze- eta/edo zehapen-prozeduraren batean ez egotearen adierazpena. (deialdi honen V Eranskina)
- ☐ Pertsona edo erakunde eskatzailea 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzko Orokorrak, 13. artikuluan diru-laguntzak lortzeko xedatutako debekuetan sartua ez dagoela adierazten duen aitortpena (deialdiaren V. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).
- ☐ Aitortpena, adierazten duena sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor penal edo administratiborik jaso ez izana, ez eta dirulaguntzetarako edo laguntzetarako deialdietan parte hartzeko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez (deialdiaren V. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).
- ☐ Adierazpena, proposatutako jardueran irabazi-asmorik ez dagoela dioena, deialdi honen V. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

¹ Sestaoko Udalak, legez esleituta dituen eskumenak baliatuz, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ditzake beste administrazio batzuetatik datozen dokumentuak, salbu eta, interesduna zaren aldetik, horren aurka egiten baduzu. Hala ere, gogorarazi behar dizugu Udalak egiaztatze- eta/edo kontrol-lanak egin ahal izango dituela, eta, beraz, inprimaki honetan jasotako edo erantsitako edozein datu eskuratu ahal izango duela.

☐ Kirol Elkartearen/Klubaren jarduera emango duen monitorearen oposiziorik eza jasotzen duen dokumentua, VII. eranskinaren arabera.

☐ Nahi bada udalak bitartekaritza egitea jarduera emango duen monitorearen hizkuntza-eskakizunari buruzko datuekin, kirol-elkarteak/klubak, eskabidearekin batera, oinarri hauen VII. eranskinean jasota dagoen oposiziorik ezaren dokumentua aurkeztu beharko du.

☐ Eta Sestaoko Udalak eskatzen dituen dokumentu guztiak, baita datu-bitartekaritzarako plataformei, sare korporatiboari edo gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez eskuratu ahal direnak ere, betiere irispide hori eragozten duten inguruabar teknikoak edo ezintasun materiala badaude.

☐ Adierazten dut ordezkatzeko dudako erakunde eta/edo elkarteak honako betekizun hauek egingo dituela:

☐ Jardueren monitoreari jakinarazi oinarrietan eskatzen den hizkuntza-eskakizuna aurkezteko derrigortasuna (2. HE), eta, hala badagokio, bere oposiziorik eza jasotzea.

☐ Xede-den jardueren arduradunari jakinarazi bere izen-abizenen eta harremanetarako telefonoaren tratamendua beharrezkoa dela.

☐ Dirulaguntzaren xede den helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabidea izan.

☐ Udalari justifikatu betekizunak eta baldintzak bete direla, bai eta dirulaguntza hau ematea edo baliatzea arrazoitu duen jarduera egin eta bere helburua ere erdietsi dela.

☐ Udalak behar dituen egiaztapen-jarduketak guztiak gauzatu.

☐ Organo emaileari edo erakunde kolaboratzaileari jakinarazi beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jakinarazten da formulario honen bidez pertsona fisikoek emandako datu pertsonalak Udalak tratatuko dituela, kirolaren eremuan Udalaren ekimena osatzen eta/edo ordeztzen duten programak eta jarduerak sustatzeko eta garatzeko. Hori guztia, hau arautzen duten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoek babesteko) 13. artikularekin; eta, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (Datu Pertsonalak Babesteko) eta Eskubide Digitalak Bermatzeko, aurrerantzean, DBLO) 11. artikularekin bat.

Erakundearen, eta/edo elkartearen datuen gainean egindako tratamendua babesik gabe dago, araudi erregulatzailerak, DBEOk eta DBLOk pertsona fisikoek datu pertsonalak soilik babesten dituztelako. Hala ere, jakinarazten dizugu diruz lagundutako jarduerak egiaztatze, gainbegiratzeko eta/edo kontrolatzeko bakarrik tratatuko dituela Udalak datu hauek: erakundearen eta/edo elkartearen ordezkariaren izen-abizenak eta kargua; jardueren arduradunaren izena, abizenak eta telefonoa; eta kirol-elkartearen edo -klubaren jardueraren monitorearen izena, abizenak, nortasun-agiri nazionala eta hizkuntza-eskakizuna.

Datu pertsonalen Tratamenduaren oinarri juridikoa honako hauetan dago jasota: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean, DLO); Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan; Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen Eusko Legebiltzarraren abenduaren 21eko 20/2023 Legean; eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan.

Kirol Elkartearen/Klubaren ordezkariaren eta jardueren arduradunaren datu pertsonalen zein monitorearen hizkuntza-eskakizunaren datuen tratamenduari dagokionez, honako hauek izango dira oinarri juridikoak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Indarrean dagoen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera, zure datu pertsonalak Kultura, Euskara eta Kirol, Ogasun eta Ondare, Diruzaintza eta Diru-bilketa eta Kontu-hartzailetza arloetako udal-langileek tratatu ahal izango dituzte, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari eta, hala badagokio, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi ahal izango zaizkio. Ez dago inola ere zure datu pertsonalak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera transferitzeko asmorik.

Halaber, jakinarazten dizugu ezen, Udalak emandako dirulaguntzen edo laguntzen onuradunei buruzko datu pertsonalak, hurrenez hurren, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean eta udalaren webgunean edo Sestaoko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko direla; hori guztia, DLOn, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) jasotako legezko betebeharrekin bat etorriz.

Zure datu pertsonal guztiak gutxienez lau urtez gordeko dira, oinarrietan deitutako dirulaguntza ordaintzen denetik kontatzen hasita.

Zure datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu Sestaoko Udaleko Erregistroan (Kasko plaza z.g., Sestao, Bizkaia). Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3a, 01.008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Azkenik, jakinarazten dizugu ez dagoela erabaki automatizaturik zure datu pertsonalen tratamenduan, eta ez dela ondorengo tratamendurik aurreikusten.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Sestaoko Udaleko Tratamendu Jardueren Erregistrora jo dezakezu.

DATA ETA SINADURA

Eskabide hau sinatuta, bertan jasotako datuak egiazkoak direla adierazi eta nire gain hartzen dut udal honen laguntza duten jardueren eta/edo programen jarraipena eta kontrola errazteko betebeharra.

II. ERANSKINA

KIROL ELKARTEEK EGINDAKO JARDUERA DESKRIBATZEKO DOKUMENTUA.

202_/202_ denboraldiari dagokion jardueraren memoria bat aurkeztuko da eta gutxienez ondoko atalak jasoko ditu:

- 1.1. Kirolari partaideen kopurua, kategoriak eta sexua zehaztuta.
- 1.2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko kirolari federatuen zerrenda erantsiko da, dagokion federazioak eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiak emana.
- 1.3. Parte hartu duten lehiaketak
- 1.4. Kirol-elkarteak/-klubak 2. HE duten monitoreak baditu, kirol-elkartearen/klubaren jarduera ematen duen pertsonak hizkuntza-eskakizuna (2. HE) egiaztatu beharko du. Kirol-elkarteak/klubak edo jarduera ematen duen pertsonak nahi badu udalak datu-bitartekaritza egitea bitartekaritza-plataformen, sare korporatiboen edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, kirol-elkarteak/klubak, eskabidearekin batera, oinarri hauen VIII. eranskinean jasota dagoen oposiziorik ezaren dokumentua aurkeztu beharko du, monitoreak sinatuta.
- 1.5. Kirola sustatzeko egindako jarduerak.
- 1.6. Udal Kirol Zerbitzuarekin lankidetzan egindako jarduerak.
- 1.7. Jarduerak egiteko erabilitako instalazioak.
- 1.8. 202_/202_. denboraldirako proiektuak.
- 1.9. 202_/202_ denboraldiko aurrekontuaren laburpen ekonomiko laburra.

III. ERANSKINA

KIROLARIAK BAKARKA EGINDAKO JARDUERA DESKRIBATZEKO DOKUMENTUA.

202_/202_ denboraldiari dagokion jardueraren memoria bat aurkeztuko da eta gutxienez ondoko atalak jasoko ditu:

1.1. Kirolariaren datu pertsonalak.

1.2. Zein lehiaketatan parte hartu duen eta lehiaketan eskuratutako lorpenak, estatuko, kontinenteko edo munduko lehiaketa den zehaztuta, eta dirulaguntza-eskaeraren xede izan den lehiaketan parte hartu duela egiaztatzen duen egiaztagiria.

LEHIAKETAK						
LEHIAKETAREN IZENA	DATA/TOKIA	LORPENA	LEHIAKETA-MAILA			ZIURTAGIRIA
			Estatukoa	Europakoa	Mundukoa	
			Estatukoa	Europakoa	Mundukoa	
			Estatukoa	Europakoa	Mundukoa	
			Estatukoa	Europakoa	Mundukoa	

1.3. Jardunarengatik sortutako gastuen laburpena; beste erakunde publiko edo pribatu batzuen eskutik jasotako laguntza ekonomikoak zehaztuta.

INBERTSIOA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA EKONOMIKOA. FAKTUREN TAULA					
HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	FAKTURAREN DATA	KONTZEPТУ A	ZENBATEKOA BEZik GABE	ORDAINKETA-DATA

IV. ERANSKINA

ERAKUNDE ESKATZAILEA DIRU-LAGUNTZAK LORTZEKO DEBEKUETAN SARTUA EZ DAGOELA ADIERAZTEKO AITORPENAREN EREDUA

..... jaun andreak, NAN zenbakia duenak,
..... erakundearen izenean
(202_/202_ denboraldian kirolaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen den moduan)

ADIERAZTEN DU ERAKUNDE HORI/HORREK

- ☐ Ez duela aurreragoko udal-dirulaguntzarik justifikatu gabe.
- ☐ Ez dagoela Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztu den izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta.
- ☐ Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako dirulaguntzak lortzeko debekuen eraginpean.
- ☐ Ez duela sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik jaso, eta ez duela dirulaguntza edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuaren zigorrik jaso Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- ☐ Ez duela inolako irabazi-asmorik, Sestaoko Udalari eskatutako dirulaguntzaren xede diren jardueren garapenarekin.

..... n, 20.....aren n

Sin:jauna/andrea

V. ERANSKINA. HARTZEKODUNAREN FITXA

KONTUAREN TITULARRAREN DATUAK			
Izen-abizenak		NAN/AIZ/IFK	
Helbidea			
Udalerria	Probintzia		PK
E-maila		Telefona	
ERANTZUKIZUNA.			

Behean sinatzen duenak:

☐

Bere gain hartzen du banku-kontua eta finantza-erakundea identifikatzen dituzten datu orokorren eta banku-datuen erantzukizuna, eta Sestaoko Udala salbuetsita dago edozein akats eta omisioren ondoriozko erantzukizunetatik.

Data eta kontuaren titularren sinadura

BANKETXEAH BETE BEHARREKO DATUAK																			
Arestian aipatutako pertsona hurrengo kontuaren titularra dela ziurtatzen dugu:																			
Finantza-erakundea:																			
IBAN				ERAKUNDEA				SUKURTSALA				KD		KONTU ZENBAKIA					
E	S																		
Udalerria				Probintzia								PK							
Banku-erakundearen sinadura eta zigilua.																			
HARTZEKODUNAREN FITXA HAU SESTAOKO UDALEAN ENTREGATU BEHAR DA, BETE ONDOREN																			

VI. ERANSKINA

ESKABIDE ETA AGIRIEN AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako aurreikuspenak indarrean jartzearekin bat, pertsona juridiko guztiek (elkarteak, erkidegoak, enpresak,...) administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko betebeharra ezarri da.

Egoera horren aurrean, hainbat inguruabar ezarri dira:

1. Eskura badugu erakundeko ordezkariaren ziurtagiri elektronikoa: Halakoetan, dirulaguntzaren eskaera Udaleko webguneko hurrengo atal honetan aurkeztu ahal izango da: Dirulaguntzak, bekak, sariak eta laguntzak eskatzea.
2. Ez dugu ziurtagiri elektronikorik eta bat lortu nahi genuke edozein administrazio publikorekin harremanetan jartzeko: Kasu horretan, aukerak ordainpekoak izango dira, eta honako erakundeen bitartez egin beharko dira:
 - edo FÁBRICA NACIONAL DE LA MONEDA Y TIMBRE (https://www.sede.fnmt.gob.es/documents/10446703/10515015/re_pr_representantepj_representanteespj.pdf).Ziurtagiri hau lortzen denean, aurreko puntuan azaldutako moduan eska daiteke dirulaguntza.
3. Ez dugu identifikazio elektronikorik, baina presidenteak edo idazkariak bai, eta Sestaoko Udalarekin bakarrik dihardugu harremanetan: Halakoetan izapidea doakoa da. Elkarteko presidenteak edo idazkariak Ordezkaritza Berriaren izapidea egin beharko du udalaren webgunearen bidez. Izapide horretan, nahitaezkoa izango da elkartearen Zuzendaritza Batzordea jasotzen duen Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroko ziurtagiria aurkeztea. Ordezkaritza onartu ondoren, jakinarazpen pertsonala jasoko da eta dirulaguntza eskatzeko izapidea 1. puntuan azaldu den bezala egin ahal izango da.
4. Ez dugu identifikazio elektronikorik, presidenteak edo idazkariak ere ez, eta Sestaoko Udalarekin bakarrik dihardugu harremanetan: Halakoetan izapidea doakoa da. Elkarteko presidenteak edo idazkariak BAKQ ziurtagiri elektronikoa eskatzeko baldintzak bete beharko ditu (helbide elektronikoa, telefono mugikorra eta 16 urte baino gehiago izatea). Eskaera aurrez aurre egin daiteke Udaleko Erregistroan, Estatistika Sailean (errolda) edo KZgunea zerbitzuan. Behin ziurtagiri hori lortuta, ordezkaritza eskatzeko izapidea egin ahal izango da, aurreko puntuan azaldu den bezala.

VII. ERANSKINA

KIROL-JARDUERETAKO MONITOREAREN OPOSIZIORIK EZA EGIAZTATZEKO AGIRIA

..... jaun andreak,
NAN zenbakia duenak, Erakundean monitore naizen aldetik, egiaztatu egiten dut nire hizkuntza-eskakizuna (HE2) aurkeztu behar dudala jakinarazi didatela eta eskakizun horren aurrean

ADIERAZTEN DUT

Nire oposizioa²

Nire oposiziorik eza

..... n, 20.....arenn.

Sin:
.....jauna/andrea

² Monitoreak bitartekaritza bidezko irispide horren aurka egiten badu, interesdun gisa ulertuko duzu kontzeptu horrengatik lortutako puntuazioa deskontatu egin dela..

VIII. ERANSKINA

ESKABIDE HONEKIN AURKEZTEN DEN DOKUMENTAZIOA



Agiri hauek erantsi ditut:

- ☐ Ordezkaritza ematea.
- ☐ Eskatzailea pertsona juridikoa bada: Identifikazio Fiskaleko Kodearen fitxa.
- ☐ Estatutuak
- ☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorreko inskribapena edo Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Berezian eginikoa.
- ☐ Hartzekodunaren fitxa behar bezala sinatua, deialdiaren V. eranskinean xedatutako ereduarekin bat.
- ☐ Izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzultze- eta/edo zehapen-prozeduraren batean ez egotearen adierazpena. (deialdi honen IV Eranskina)
- ☐ Pertsona edo erakunde eskatzailea 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzko Orokorrak, 13. artikuluan diru-laguntzak lortzeko xedatutako debekuetan sartua ez dagoela adierazten duen aitortpena (deialdiaren IV. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).
- ☐ Aitortpena, adierazten duena Sexu-diskriminazioagatik zehapen penal edo administratiborik jaso ez izana, ez eta dirulaguntzetarako edo laguntzetarako deialdietan parte hartzeko debekurik ere, Berdintasunerako Euskal Legearen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, 3. 1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ☐ Adierazpena, proposatutako jardueran irabazi-asmorik ez dagoela dioena, deialdi honen IV. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
- ☐ Nahi bada udalak bitartekaritza egitea jarduera emango duen monitorearen hizkuntza-eskakizunari buruzko datuekin, kirol-elkarteak/klubak, eskabidearekin batera, oinarri hauen VIII. eranskinean jasota dagoen oposiziorik ezaren dokumentua aurkeztu beharko du.
- ☐ Eta Sestaoko Udalak eskatzen dituen dokumentu guztiak, baita datu-bitartekaritzarako plataformei, sare korporatiboei edo gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez eskuratu ahal direnak ere, betiere irispide hori eragozten duten inguruabar teknikoak edo ezintasun materiala badaude.

.....n, 202_.....arenn

Sin.:jauna/andrea